



**2022KO EKAINAREN 30EKO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko ekainaren hogeita hamarreen, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Felix Urkola Iriarte, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Josu Sarriegi Zumarraga, Maialen Amundarain Irizar eta Ion Garmendia Iturbe.

Bere ezin etorria adierazi du Amagoia Naldaiz Mingo zinegotziak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2022ko maiatzaren 26an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- 6 H.J.A. -ITURGAITZAGA-KO 12. E.L.REN XEHETASUN AZTERKETA.-

Agaunza Berri S.L.k, ARKILAN ARQUITECTOS ASOCIADOS S.L.P.k eta Jose M^a Abad abogatuak idatzitako Iturgaitzagako 12. Lursailaren xehetasun azterketa aurkeztu du.

Dokumentuaren memoriak dionez, bere helburua "12. lursailaren lerrokadurak berarrantolatzea" da, bertan egiteke dagoen eraikigarritasunaren birbanaketa egin ahal izateko.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko martxoaren 7an egindako bikuran, dokumentuari hasierako onarpena eman zion, nahiz eta behin betiko onarpena eman aurretik txosten juridikoak dioenera egokitutako dokumentua aurkeztera baldintzatutakoa izan.

Onarpenaren iragarkiak 2022-03-21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2022-03-17ko Berria eta El Diario Vasco egunkarietan argitaratu dira.

Dokumentua jendaurrean eduki da 20 eguneko epean eta denboraldi horretan ez da inolako erreklamazio edo alegaziorik aurkeztu.

Beste alde batetik txostena eskatu zitzaion URA eta Ur Agentziari eta honen erantzunez bi txosten jaso dira, bat Kantabrikoko Ur Konfederakuntzarena eta bestea Eusko Jaurlaritzaren URA Ur Agentziarena eta bai bata bai besteak aldeko txostenak egin dituzte.

Agaunza Berri S.L.k aurkeztu du zuzendutako dokumentua.

Hau guztia kontuan izanda, eta gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin zera erabaki du:

Lehena.- Iturgaitzagako 12. lursailaren Agaunza Berri S.L.k sustatutako eta ARKILAN ARQUITECTOS ASOCIADOS S.L.P.k eta Jose M^a Abad abogatuak idatzitako xehetasun azterketa hau behin betiko izaeraz onartzea.

Bigarrena.- Behin betiko onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

IV.- GOIERRIKO ESKOLAKO BIDEAREN OBRA ZERGAREN %95EKO HOBARI ESKAERA.-

Goierriko Herrien EkinLza Fundazioak, Goierriko Eskolarako bidearen konponketaren obra zergan, interes bereziko obraren kasurako ordenantza fiskalean aurreikusitako %95eko hobari eskaera aplikatzea eskatu du.

Obraren aurrekontua 47.273,26 € da. Bide hau Ordizia eta Lazkaoren lurretan dago eta Lazkaoko lurretan dagoen bidearen zatia %19,39koa da. Hau honela Lazkao Udalari likidatzea dagokion obraren aurrekontua 9.166,29 €koa da. Obra zergaren likidazioa aurrekontuaren %3 da, hau da, 274,99 € eta honen %95eko hobaria 261,24 €.

Lazkaoko Udalaren eraikuntza, instalazio eta obraren gaineko zergaren ordenantza fiskalak, hobarien artean 100eko 95era bitarteko hobaria aurreikusten du, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik.

Bertan xedatzen denez, izendapena udal batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Hau honela, gaia aztertu ondoren, eta Ogasuneko batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordioak hartu ditu:

- 1.- Goierriko Herrian Ekintza Fundazioaren obra interes bereziko izendatzea.
- 2.- Obrari dagokion obra zergaren likidazioaren %95eko hobaria onartzea.

V.- KALE GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATU BERRIA ESLEITU BITARTEKO EGOERA.-



Udal honek onartuta dauka kale garbiketa zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea eta lizitazio deialdia. Une honetan espedienteak proposamenak jasotze epea irekita dauka.

Beste alde batetik lehengo kontratua amaituta dago, 2022ko martxoaren 31ko datan amaitu zen.

Hau honela izanda, eta zerbitzua ematea nahita nahiezkoa izanik, lehengo kontratuaren Traeco Medioambiental S.L. enpresa esleipendunari eskatu zaio, kontratu berria indarrean izan arte, zerbitzua ematen jarraitzeko.

Enpresak baietz erantzun du baina kostuen egokitzapena egin beharko litzakeela adieraziz, hauetan egon diren igoerak jasoz.

Igoera hauek, udal zerbitzuetako koordinatzaileak egindako txostenean adierazten denez, gaur egungo kontratu prezioaren %8,25ekoak dira, hau da, hilean BI MILA ZAZPIEHUN ETA ZAZPI euro ETA BERROGEITA SEI zentimo (2.707,46 €), BEZ kanpo.

Aipatu txostenean adierazten da baita ere kontratu berria indarrean sartzearen aurreikusitako data 2022ko azaroaren 1a dela eta beraz aurreikusitako gailkostua HEMEZORTZI MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA HAMABI euro ETA HOGEITA BI zentimokoa (18.952,22 €) dela. Zenbateko honi dagokion BEZ erantsi behar zaio.

Gaia aztertu ondoren eta ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, lehiaketa bidez orain proposamenak aurkezte epean dagoen kontratazio espedientea indarrean sartu arte, kale garbiketa zerbitzua Traeco Medioambiental S.L. enpresarekin ematen jarraitzea, lehengo prezioaren %8,25eko gailkostua onartuz.

VI.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 3 ZK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du ontzat ematen dutela kreditu aldaketa eta alde bozkatuko dutela.

Hau guztiaren ondoren, gaia bozketan jarri da, eta udalak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 3 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	34.000,00 €
VI	Inbertsio errealak	22.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		56.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	56.000,00 €
GUZTIRA		56.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VII.- 2021EKO KONTU OROKORRA.-

2021eko ekitaldiko Kontu Orokorra, Kontuetarako Batzorde Bereziak 2022ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran aztertu eta informatua izan zen.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2022ko maiatzaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 baliodun egunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, 2021eko ekitaldiko kontu orokorra onartu egin du.

Kontu Orokor honek udalaren 2021eko Kontu Orokorra eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkarte anonimoaren 2021eko urteko kontuak hartzen ditu barne.

VIII.- 2022KO EKAINAREN 28KO BERDINDU! ZERBITZUAREN ADIERAZPENA, SEXU-ASKAPENAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA, EAJ-PNV-K AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

Moizioak honela dio:

"Aurreko urteetan egin bezala, aurten ere aldarrikatu nahi dugu euskal gizar-



teak afektibotasunari, sexuari eta generoari dagokionez aniztasunean bizitzeko daukan eskubidea. 53 urte dira New Yorken Stonewall-eko istiluak gertatu zirela. 1969ko ekainaren 28 hartan, manifestazio espontaneo eta bortitzak egin zituzten, New Yorkeko Greenwich Village auzoko Stonewall Inn tabernan poliziak egindako sarekadaren kontra.

Maiz adierazten da istilu horiek lehen aldia izan zirela Estatu Batuetako historian, non LGTBI komunitateak matxinada egin zuen komunitatea Gobernuaren onespenerekin jazartzen zituen sistemaren aurka. Horregatik, LGBTI kolektiboaren eskubideen aldeko mugimendu garaikidearen hazitzat hartzen dira mundu osoan.

Eusko Jaurlaritzaren Berdinu! Zerbitzuak- LGTBI kolektiboko kideei informazioa, aholkularitza eta laguntza eskaintzen dizkienak- aitortza egin nahi die kolektiboak gaur egun dituen eskubideak lortzeko bidean bizia galdu zutenei eta aktibismoari denbora eta izerdia eskaini zizkiotenei. Halaber, ezin da ahanzturan erori aktibistek egin zuten eta egiten diharduten gizarte-eraldaketako lana.

Horrez gain, belaunaldi berriengan ere jarri nahi dugu arreta, oraindik ere lortzeke dauzkagun eskubide askoren alde ari baitira lanean. Azkenik, aipamena egin nahi diegu gure lurraldearen mugetatik kanpo borrokan ari eta kolektiboari eragiten dioten Giza Eskubideen urraketen aurka altxatzen direnei.

Berdindu! zerbitzuko kideon iritziz, erne egoten jarraitu behar dugu lurraldean gertatutako LGTBI kolektiboaren aurkako erasoen eta sexu- eta genero-aniztasunaren aurkako ideia politiko jakinen aurrean. Trans kolektiboaren eskubideak aldarrikatu behar ditugu, eta euren bizi-prozesua jarraitzen duten horiek babesteko legezko esparruak egituratu. Era berean, kolektiboari ikusgarritasuna eman behar diogu gizartean, eta elkarbizitza, errespetua, aniztasuna eta Giza Eskubideak sustatu behar ditugu.

Gonbita luzatzen diogu euskal gizarteari denoi eragiten digun prozesu honetan esku hartzeko, kolektiboarentzat horren garrantzitsua den egun hau ospatzeko eta ez ahazteko Berdinu! zerbitzuak egunero diharduela lanean. Izan ere, gizarte anitz honetako kide guztioi eragiten digu aferak, eta denoi dagokigu borrokan parte hartzea.

Azkenik, deia egin nahi dizuegu gaurko egunari ikusgarritasuna emateko eta gizartea sentibilizatzeko antolatutako aldarrikapen ekitaldietan parte hartzeko, bai sare sozialen eta komunikabideen bidez, bai kaleetan. Txikia izanik ere, ekintza oro baita garrantzitsua aniztasunaren aldeko borrokan.

Horregaitik, Lazkaoko Udalak konpromezua hartzen du, Eusko Jaurlaritzaren Berdinu! Zerbitzuen eta LGTBI kolektiboen eskutik, bere kideen eskubideak lortzeko, laguntza eta babesa eskaintzen jarraitzea."

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) mozioaren inguruko hiru galdera egin dizkio alkateari eta honek erantzun egin dio.

Gaiaz eztabaidatu ondoren Ormazabal zinegotziak esan du beraiek abstenitu egingo direla.

Gai bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 5 abstentzioz, mozioa onartzea erabaki du.

IX.- "LGTB+ BIZITZEK BALIO DUTE", EH BILDUREN MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"Maiatzaren 17an, LGBT+fobiaren kontrako egunean esaten genuena errepikatzen dugu Ekainaren 28an, LGBT+ harrotasunaren egunean. Harro gaudelako gure bizitzek, harro gure bizi historiaz, harro LGBT+ mugimenduz.

Komunikabide nagusien estigmatizazio saiakerek eta manipulazioak zein eskuin muturreko diskurtsoek cis-hetero arautik ateratzen diren bizitzak ezabatu nahi dituen honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da nondik gatozen ospatzea eta aldarrikatzea. Stonewalletik Euskal Herrira, milaka bizipen, galera, aldarrikapen eta lorpen izan ditugu, baina oraindik egiteko asko dago. Eraso LGBT+fobikoen datuak gora doaz, arnairuak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan, diskurtso patologizatzaileak ugaritzen ari dira... eta ondorioz gure bizitzak arriskuan daude.

Honen guztiaurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu. Gure kasuan, instituzioetatik politika publiko integral eta sendoak, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... ezartzea ezinbestekoa dugu. Anekdotikoak diren politikak alde batera utzi, eta estrukturak diren horiek erdigunean jartzeko garaia da. Horretan ari gara gobernatzen ari garen hainbat udaletan, eta hori sustatuko dugu oposizioan gauden toki guztietan ere.

Horregatik guztiagatik udalean konpromisoa hartzen dugu, gure herriko LGBT+ pertsonen bizitzen gaineko diagnostikoa egin, eta honetan oinarritutako ekintza plan integral bat abiatzeko. Prozesu hau, herriko LGBT+ mugimenduko kideekin batera egiteko konpromisoa hartzen dugu eta egon ezean, erreferente eta norbanako ezberdinak aktibatzekeo modua sustatuko dugu.


Honetaz gain, dei egiten dugu Ekainaren 28aren bueltan antolatu diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko, eta amaitzeko, LGBT+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lanean eta borrokan ari diren kide eta kolektibo guztiak zoriondu nahi ditugu, harrotzeko moduko mugimendua osatzen dugulako. Gure bizitzek balio dutelako, gora Ekainaren 28a!

Mozio honek Goierriko LGTBI+ mugimenduaren adostasuna du."

Gaiaz eztabaidatu ondoren bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin mozioa onartu egin du.

X.- HERRIETAN OSAKIDETZAREN ANBULATORIOAK IXTEAREN AURKAKO ETA OSASUN SISTEMA PUBLIKOA INDARTZEAREN ALDEKO EH BILDUREN MOZIOA.-

Osasun Sistema Publikoan, Osakidetzan gertatzen ari dena ez da berria. Azken urteotan Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakien ondorio da:



- Etenik Gabeko Arreta Guneak, PAC direlakoak, itxi dira, edo ordutegiak murriztu zaizkie.
- Osasun etxeetan izugarritzko profesional gabezia dago. Eta ondorioz, profesional baten, gainerakoen agendak bete behar izaten ditu. Egunero 45 kontsulta izan ditzake. Egoera horretan ezinezkoa da pazienteei kalitateko arreta bermatzea.
- Hainbat eta hainbat osasun etxetan urte eta hamarkada luzez izandako zerbitzuak ixten edo murrizten ari dira.
- Aurrez aurreko kontsultak lortzea gero eta zailagoa da. Atzerapenak nabarmen areagotu dira.
- Adinekoen eta gaixo kronikoen jarraipenerako gero eta zailtasun handiagoak.
- Osasun sustapena bertan behera geratzen joan da edo ez da behar bezala garatu.

Hori guztia ez da pandemiaren errua; ez zen pandemiarekin hasi. Murrizketak eta planifikazio eza, eta osasun sistema publikoa pribatuaren mesedetan ahultzeko estrategia aspaldiko kontuak dira. Osasun sistema | publikoan eman diren atzerapausoak gero eta nabarmenagoak izan dira, bereziki 2018tik gaurdaino. Eta honen guztiaren ondorioak herritarrek (pazienteek) jasaten dituzte; are gehiago, herri txikietan.

Pandemian denok ikusi dugu zein garrantzitsua den kalitateko lehen mailako arreta izatea, baina, sistema hori indartu beharrean, Jaurlaritza kontrakoa egiten ari da.

Herri txikietan medikuarenera joateko beste herri edo hiri batera joan beharko dute. Hori ez da aldaketa kultural bat, oinarrizko eskubide baten aurkako eraso bat baizik. Pertsona guztiok kalitateko arreta sanitario publikoa jasotzeko eskubidea dugu, eta hori da orain arriskuan dagoena.

Hori dela eta, Lazkaoko udalbatzak:

- 1.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio urte osoan zehar, uda sasoiaren barne, herri honetako osasun sistema publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak berma ditzala.
- 2.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehentasunez mediku egoiliarren kontratazio-eredua alda dezala, kontratu egonkorak eta lehen arretan euren garapen profesionalerako ibilbidea ahalbidetuko dietenak bermatuz.

Halaber, gainerako osasun profesionalen kontratazio baldintzak hobetzeko xedearekin, Osakidetza kontratazio irizpideak aldatzea, beti ere egonkortasuna eta garapen profesionala sustatuz, horrela Osakidetza erakargarriago bilakatzeko eta indartzeko.

- 3.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Lehen Arreta eskaintzen duten mediku, erizain eta gainerako osasun profesionalen kopurua handitu dezala. Xede horrekin diziplina anitzeko lantaldeak sor ditzala, non beste profil profesional batzuk txertatuko diren, hala nola, geriatrak eta fisioterapeutak."

Alkateak esan honen aurrean eta bi mozioak gal berari buruzkoak direnez, beraien mozioa irakurriko dutela, eztabaida bakarra egitearren, nahiz eta gero bi mozioak banaka bozkatuko diren.

EAJ-PNVren mozioak honela dio:

"OSASUN SISTEMA PUBLIKOA INDARTZEKO MOZIOA

- 1.- Lazkaoko Udalak eskatzen dio Osasun Sailari, herrialde honetako osasun-sistema publikoak urte osoan eskaintzen duen laguntza, berma dezala, baita udaldian ere.
- 2.- Lazkaoko Udalak eskatzen dio Osasun Sailari, urtero eskain dezala egiaztatutako prestakuntza-eskaintza guztia, datozen urteetan profesionalen eta Osakidetzako profesionalen arteko belaunaldi-txandari erantzun ahal izateko.

Era berean, Osasun Sailari eskatzen dio, prestakuntza amaitzean, kalitatezko enpleguaren aldeko apustuaren parametroen barruan lan-kontratu bat eskain diezaiela Euskadiko osasun-arretako sistema indartzen jarraitzeko beharrezkoak diren pertsona guztiei.

- 3.- Lazkaoko Udalak Osasun Sailari eskatzen dio, Osakidetzako plantilla berritzeko, egonkortzeko eta beharrezkoa den neurrian handitzeko politikarekin jarraitzeko, XII. lege-gintzaldirako Gobernu Programako konpromisoak betetzeko, eta, ildo horretan, Lehen Mailako Arretari dagokionez, plaza hutsen eskaintzari eusteko eta zabaltzeko, estaldura indartzeko. Era berean, Lehen Mailako Arretako Estrategian (fisioterapia, farmazia komunitarioa) aurreikusitako profil profesional berriak inplementatzen jarraituko du, osasunaren zaintza integrala hobetzeko apustuan.
- 4.- Lazkaoko Udalak Osasun Sailari eskatzen dio amaitu ditzala jada onartuta eta deituta dauden lan-deialdi publikoen prozesuak, plantillen jarraitutasuna eta egonkortasuna bermatzeko, eta, aldi berean, lanean jarrai dezala hurrengo urteko LEPak eta deialdiak onartzeko, behin-behinekotasuna murrizteko eta enplegu egonkor eta kalitatezkoari laguntzeko konpromisoan."

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du ez daukatela ezer EAJ-PNVren mozioaren aurka.

Alkateak esan du EH Bilduren mozioaren sarrerari buruz ikuspegi ezberdina dutela, sarrera horretan mezu apokaliptiko edo katastrofista ematen dela iruditzen zaiela eta beraien ustez lehen arreta ez dagoela arriskuan.

Gaiaz eztabaidatu ondoren bi mozioen bozkera egin da emaitza hauekin:

EH Bilduren mozioak aldeko 5 botu (EH Bildu) eta aurkako 6 botu (EAJ) eta ondorioz baztertua izanda.

EAJren mozioak aldeko 6 botu (EAJ), aurkako botorik ez eta 5 abstentzio (EH Bildu), eta ondorioz onartua izan da.



XII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak azkena onartu den mozioaren inguruan alkateari hainbat gauza egin ditzan eskatu dio.

Alkateak erantzun dio hartutako konpromisoak beteko dituztela baina hortik aurrera nola bideratu behar diren beraien ikusiko dutela.

Alkateak esan du Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) egin dion eskaeraren aurrean hurrengo osoko bilkura uztailaren 21ean egingo dela 28an egin beharrean eta beraz ezohiko osoko bilkura izango dela.

XIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko zortziak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

LAZKAOKO
UDALA